

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DERIOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2013.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuen joan den azaroaren 26an Derioko Udalaren eta Derioko Udal Kiroldegia erakunde autonomoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena.

Txostenak ondorioztatu du bai Udalak, bai Derioko Udal Kiroldegiak **zuzentasunez bete dutela** 2013ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko-finantzarioa arautu duen legezko araudia. Alabaina, akatsak azaleratu dira Administrazioako Kontratazioan (Udalak 2 kontratu publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez lizitatu zituen, publikotasun printzipioa beteko zela bermatuko zuten prozedurak baliatu gabe, eta zuzenean kontratatu zituen 5 zerbitzu eta hornidura bat. Derioko Udal Kiroldegiak ez zuen 2 kontraturen lizitazioa DOUEn eta BOEn argitaratu. Gainera, kontratu hauek eta beste kontratu bat ez zituen Errektoretza Kontseiluak esleitu. 2006an esleitutako beste kontratu batean Organismoak ez ditu berariaz onartu ez prezioen berrikusketak, ezta arauketa aldaketek edo zerbitzua handiagotzeak eragindako aldaketak ere).

Urteko kontuei buruzko **iritzia aldekoa** da. Epaitegiak ezin eman izan du bi erakundeen Ibilgetuko saldoen zuzentasunaren gaineko iritzirik, izan ere, balorazioa berrikusi beharrean duten zenbait kontu-sail atzeman ditu.

Udalaren **finantza egoerari** dagokionez, txostenak 2013an sortutako aurrezkoa azpimarratu du, gastuari eusteko hartutako neurrien eta zerga eta tasetan eragindako igoeren ondorioz. Berebat, azpimarratu behar da Udalak **ez zuela zorpetzerik** 2013ko abenduaren 31n eta data horretan Diruzaintza Geldikin erabilgarriak sarrera arrunten % 26 egiten zuela.

Gainera, txostenak ondorioztatu du Udalak 2013an **aurrekontuaren egonkortasun** eta **zor publikoaren** helburuak eta **gastuaren araua** bete dituela.